


**GOSEARI**  
**AURRE EGIN**  
**POBREZIA**  
**GUTXITZEKO**






# Janariak bizia ematen digu

Gure familia pertsona hauek osatzen dute: aita, ama eta hiru seme-alaba.  
 Alokaturako etxe batean bizi gara.  
 Gurasoen lanari esker 252 euro/hila irabazten dugu.  
 Mesedez, lagundu hilabete honetarako erosketak egitera.

	Kantitatea	Salneurria
Lekak, arroza, pasta	70 gramo pertsona/eguna	1,50 euro/kilo
Barazkiak	250 gramo pertsona/eguna	3 euro/kilo
Frutak	Ale bat pertsona/eguna	0,25 euro/ale
Arrautza	Bi ale pertsona/astea	1,50 euro/dozena
Esnea	1/4 litro pertsona/eguna	0,80 euro/litro
Oilaskoa	1/4 kilo pertsona/astea	4 euro/kilo
Olio, erregaia, gatza		0,20 euro pertsona/eguna

	Asteko gastua	Hileko gastua
Lekak, arroza, pasta		
Barazkiak		
Frutak		
Arrautza		
Esnea		
Oilaskoa		
Olio, erregaia, gatza		

# Goseak min egiten du



# GOSEAREN zenbait mito

Hau esaten da...	Baina...
Gosea dago, elikagai gutxi daudelako.	Munduan ekoizten den zereal-kantitatea kontuan hartuta, behar adina elikagai daude munduan, pertsona guztiei egunero behar adina proteina eta 3.000 kaloria baino gehiago emateko behar beste.
Gosea dago, lur gutxi dagoelako.	Labora daitekeen luraren %44 soilik laboratzen da. Kontua da lur gehienak esportatzeko laboreak landatzeko erabiltzen direla.
Gosea hondamendi naturalen (lehorteak, uholdeak, lurrikarak...) ondorio da.	Goseteak ez dira hondamendi naturalak, giza ekintzen ondorio diren ezbehar sozialak baizik. Herrialde pobreetan gertatu edo herrialde aberatsetan gertatu, eragin desberdina dute hondamendi naturalek (adibidez, Japoniako lurrikarak).
Gosea gainpopulazioaren ondorio da.	Gosearen kausa nagusia luraren jabetza-sistema da. Beharrezkoa da nekazariek lurra kontrolatzea.



# GURUTZEGOSEA

Kokatu hitz bakoitza dagokion lekuan eta Afrikan pairatzen den gosearen arrazoiak aurki ditzakezu.

MULTINAZIONAL - GUDA - DIAMANTEAK -  
Merkataritza - BIOERREGAIA

1	Enpresa handiek munduko merkataritza kontrolatzen dute.	4	Petrolioaren deribatuak eta landare-olioak nahasiz lortutako erregaia.
2	Harribitxia, oso gogorra, distratsua, bitxigintzan erabilia.	5	Gatazka armatua.
3	Merkantzien salerosketa.		

## Otoitza egiteko



### Maitatzen ikasteko otoitza

Jauna, gose naizenean, emadazu janaria behar duen norbait;  
Egarri naizenean, emadazu ura behar duen norbait;  
Hotz naizenean, emadazu beroa behar duen norbait;  
Sufritzen dudanean, emadazu kontsolamendua behar duen norbait;  
Nire gurutzea astuna iruditzen zaidanean, utzidazu besteren gurutzea konpartitzen;  
Pobretasunean banago, jarri nire ondoan behartsu bat;  
Astirik ez dudanean, emadazu nire minutuak behar dituen norbait;  
Umiliatua banaiz, emadazu aukera norbait goraiatzeko;  
Animorik gabe banago, emadazu norbait animo berriak emateko;  
Besteek ni ulertzea nahi dudanean, emadazu nire ulermena behar duen norbait;  
Zain nazaten beharrezko zaidanean, emadazu norbait nik zaintzeko;  
Nigan pentsatzen dudanean, zuzendu nire arreta beste pertsona batengana;  
Zure laguntzarekin izan gaitezen duinak, Jauna, gure anai-arrebak zerbitzatzeko;  
Emaiezu, gure eskuen bitartez, ez soilik eguneroko ogia,  
baizik eta gure maitasun errukiorra, zurearen irudia dena.



**Madre Teresa de Calcuta**

### Irakats iezadazu dudana elkarbanatzen

Jesus, agian ez dut emateko gauza askorik,  
baina besteekin elkarbanatzeko dohain asko jaso ditut.  
Irakats iezadazu egoista ez izaten,  
lehenik besteekin pentsatzen, eta pozez elkarbanatzen.  
Irakats iezadazu naizena eta dudana elkarbanatzen.  
Nire gauzei gehiegi ez atxikitzen eta niretzako ez gordetzen,  
baizik eta haiek eskaintzen ikasten,  
den-denek jaso dudanarekin gozatzeko aukera izan dezaten.  
Asko dut emateko,  
eta dudana, elkarbanatzen badut, ugaritu egin daiteke.  
Jesus, alda ezazu nire bihotza, dudana elkarbanatzeko,  
eman ezazu jaso egiten delako, eta elkarbanatuz,  
gure bihotzean aurkituko zaitugu.

### Maria, irakats iezaguzu...

Maria, ogirik ez duten haurren ama,  
irakats iezaguzu elkarbanatzen.  
Maria, babesik gabekoen ama,  
irakats iezaguzu abegitsuak izaten.  
Maria, oinutsik dabilzananen ama, irakats  
iezaguzu bihozberak izaten.  
Maria, gerra jasaten dutenen ama, irakats  
iezaguzu baketsuak izaten.  
Maria, txiroen ama,  
irakats iezaguzu elkarbanatzen.  
Maria, negar egiten dutenen ama,  
irakats iezaguzu kontsolatzen.





San Francisco, 12A-3º  
48003 - BILBAO  
[mision-bi@terra.es](mailto:mision-bi@terra.es)